



ESKOLA TXIKIEN XXVI. FESTA: OLABERRIA 2013 FESTA EGUNEKO BAZKARIA

Agur t'erdi:

Dakizuen bezala **datorren 2013ko ekainaren 9an Olaberrian** ospatuko da **Eskola Txikietako XXVI. Festa** eta dagoeneko antolakuntzan erabat murgildurik gaude. Hau horrela, ohikoa den bezala bazkarirako izen - ematea ere lotu beharra daukagu.

Aurtengo bazkaria herriko frotoian izango da.

Menua eta prezioak:

Helduentzat : 18€.

- Paella.
- Haragi gixatua.
- Ijito besoa izozkiarekin.
- Edaria (ura, urteko ardo beltza eta sagardoa), ogia eta kafea. Ez da pattarrik banatuko.

Haurrentzat (zeliakoentzat egokia): 10€

- Paella.
- Xolomoa.
- Izozia.
- Ura.

Zenbat heldu eta zenbat haur zareten aipatu beharko duzue **maiatzaren 20a baino lehen**. Zeliako, diabetiko edo antzeko arazoren bat dutenen berri aurrez jakitea eskatzen da.

Frontoian 300 lagunentzako tokia izango da. Hau dela eta, eskaerak iristen diren ordenean onartuko dira. Bazkaria, zuen eskaria jasotzen dugunetik aste beteko epe barruan, hau da; **maiatzaren 27a baino lehen ordaindu** beharko duzue honako kontu honetan: KUTXABANK 2095 5049 65 1073434275

Frontoian bazkaltzeko txartelak jaiaren egunean jaso ahal izango dituzue antolatuko dugun kontsignan.

Eskaerak jasotzeko helbide elektronikoa: komunikazioa2013@kuttunolaberria.org

Bestalde, txoznan eta herriko elkarteetan pintxoak eta ogitartekoak eskainiko dira eta etxetik ekarritako bazkaria eta bertan erositakoa jateko gunea ere izango da.

Bertaratuko zeratelakoan agurtzen zaituztegu.

t

Ondo izan.

